

DSDEN 64 proiektua – Antzerkia (Xiberua) Gazte antzerki idazketa garaikidearen inguruan

Gazte antzerki idazketen ibilbideari begirada berezia

Stéphane Jaubertie, antzerki sortzailea gazte antzerki idazketei eskiani sail berezi baten laguntzaile artistikoa izanen da bigarren denboraldirako segidan. Idazketa dinamiko ataleriak eskainiko ditu klaseetan zuzenki. Beste kultur ekintza batzuk (formakuntzak, irakurketak, belaunaldi arteko ateleriak) garatuak izanen dira ere, argitaratu antzerki garaikideko sortzaileen testuetan oinarritzen diren lau ikuskizunekin loturan. Ikuskizun hauek, Euskal Hirigune Elkargoko 20/21 kultur denboraldiaren baitan programatuak dira bestalde. Nazio mailan Scène d'enfance - Assitej France elkarteak dakartzan Gazte antzerki idazketak argian ezartzeko nahikeria batean sartzen da Stéphane Jaubertierekin eraman lankidetzara hau. Publikoki aurkeztua izanen da begirada berezi hau « ekainaren 1eko antzerki idazketa garaikideen »karietara.

Gazteriarri zuzendu antzerkiko errepertorioaren aberastasunak ezagutu nahi dituzten irakasleei formakuntza ziklo bat proposatzen diegu kari horretara. Stéphane Jaubertiek eskainiko du lehena eta Magali Mougelek bigarrena. Lehen formakuntzaren garaian, « Gazte antzerki idazketak » maleta banatua izanen da. Maleta horretan bilduak dira unibertso, gai, erritmo eta mintzaira desberdin hunkitzen dituzten 13 obra.

Antzerki idazketa garaikidearen hari gorriari jarraikiz, denboraldi honetako DSDEN 64 – Antzerkia proiektuaren bidez zuen ikastaldean antzerkiaren idazketan murgiltzen ahalko zarete. Zuberoako 6 ikastaldek (bakarrik CM1 eta CM2) proiektuan parte hartzen ahalko dute.

Hona DSDEN 64 – Antzerki proiektuan zer baden:

* 2 formakuntza (nahitaezkoak) irakasleentzat, antzerki idazketa garaikideari buruz:

- Abenduaren 9an, asteazken : Stéphane Jaubertiek aurkeztuko ditu ukanen dituzuen maleta pedagogikoak, eta tresnak ere emanen ditu maleta horiek zuen ikasgelan erabiltzeko.

- Martxoaren 31n, asteazken : Stéphane Jaubertie-ren formakuntza.

* Ikasleek Kultura Bidean proiektuaren 2020-2021eko denboraldiko ikusgarri bat ikusiko dute.

* Konpainia bat 4 orenez ikastalde bakoitzarengana etorriko da.

* Antzerki-topaketa bat egingen da ikasgelan landu antzerkiaren aurkezteko.

Arduraduna : Anne Denoroy : a.denoroy@communaute-paysbasque.fr